



AIARAKO UDALAK 2022ko AZAROAREN 17an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

Susana Martín Benavides andrea

José Antonio Bartolomé

Pesquera jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeitabiko azaroaren hamazazpian, hamazazpiak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko urriaren 5ean eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta eta 2022ko urriaren 20an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Ez da iruzkinik egin eta 2022ko urriaren 5ean eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Ondoren, 2022ko urriaren 20an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

2.- Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko urriaren 11ko Gizarte eta Osasun, Berdintasun, Immigrazio eta Adinekoen Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.



Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, azaroaren 25erako Aiarako Udalaren Adierazpena, 2022. urtekoa.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez honako hau **ERABAKI DUTE:**

LEHENENGOA.- Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko eguna dela eta, azaroaren 25erako Aiarako Udalaren Adierazpena onestea, 2022. urtekoa, hitzez hitz honako hau diona:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA DELA ETA, AZAROAREN 25ERAKO AIARAKO UDALAREN ADIERAZPENA, 2022. URTEKOA

Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25ean emakumeen eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horietaz gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Labur esanda, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Horrela, azaroaren 25 hau indarkeria matxistaren hainbat alderdi identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, gizartean normalizatuta dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukituak, hitz lizunak, mezu eta adierazpen sexistak, janzkera kontrolatzea, sare sozialen erabilera eta lagunak, espazio publikoa libreki okupatzeko zailtasunak (eskolako patioak, jolasguneak, parkeak) edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurka zuzenean doazen erabaki administratiboak. Bigarren fasean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak daude, eta, kasurik muturrekoenean, erailketak.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldean arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakume eta neskatilek espazio publikoan sufritzen ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien



askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak ere kontrolatzen ditu.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

«Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak» Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen ditu emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko eta berdintasunaren aldeko bizitzeko aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Aiarako Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

- 1. Indarkeria digitala prebenitzeko eta erantzuteko estrategiak landuko ditu, indarkeria matxisten egungo egoeraren analisiari erantzuteko.*
- 2. Jai-giroan ematen diren erasoei erantzuteko eta horiek prebenitzeko protokoloa berritzeko/sortzeko, eta hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiteko konpromisoa hartzen du.*
- 3. Emakume gazte eta adinekoentzako ahalduntze-tailerrak antolatuko ditu, hainbat gai lantzeko, hala nola, bikote-harremanak, harreman afektibo-sexualak, maitasun erromantikoa, sexualitate askeak, etab. Halaber, autodefentsa feministako tailer iraunkorrak antolatzen jarraituko da 10 urtetik gorako neska eta nerabeentzat.*
- 4. Konpromisoa hartzen du mutilentzako eta gizonentzako tailerrak abian jartzeko, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak eta berdintasuna lantzeko gaiak lantzeko. Horretarako, konpromisoa hartzen du programa zehatzak aktibatzeke.*
- 5. Indarkeria matxistari erantzuteko baliabideei buruzko informazioa zabaltzea, hala nola 900840111 telefono-baliabideari buruzkoa, edozein erabaki hartu aurretik emakumeek informazio guztia izan dezaten. Informazio hori hedabide guztietan zabalduko da, baita udal-aldizkarietan ere.*
- 6. Jaietako kanpainetan, konpromisoa hartzen du fokua jartzeko erasotzaileengan, eta ez hainbeste emakumeengan, arazoa haiek direla argi gera dadin.*



7. *Sakon ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politikak diseinatzean eta garatzean kontuan hartzeko.*
8. *Espazio publikoetan sexu-indarkeria prebenitzeko eta horri erantzuteko lege eta politika integralen inplementazio eraginkorra bultzatzea, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitatearen mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatuz.*
9. *Jarreretan eta portaeretan aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskek indarkeriarik gabeko gunez gozatzeko dituzten eskubideak bermatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatuz espazio publikoetan.*
10. *Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan benetako eta hautemandako segurtasunean, hiri-plangintzan genero-ikuspegia ziurtatuz, emakumeen eta nesken beharrak kontuan har daitezzen.*
11. *Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutzen trukea errazteko, hiri eta herri seguruak eta inklusiboak lortzeko emakumeentzat eta neskeentzat.*
12. *Lankidetzan aritzea beste erakunde eta administrazio batzuekin, Emakunderekin eta foru-aldundiekin, besteak beste, bai eta ehun sozial eta feministarekin ere, emakumeek eta neskek espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko aukera izan dezaten.*

Amaitzeko, dei egiten diegu herritarrei azaroaren 25eko kanpainaren baitan antolatutako ekintza guztietan parte har dezaten.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Babio guraso-elkartearen lankidetzaren hitzarmena, eskolaz kanpoko jardueretarako, 2022-2023 ikasturterako.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko azaroaren 8ko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak duen interes publikoa hurrek kultura- eta kirol-jarduerak egin ditzaten zaindu eta sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta “GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES” elkartearen arteko lankidetzaren proposamena, eskolaz kanpoko jarduerak (2022-2023 ikasturtea) egiteko gastuak finantzatzeko.



AINTZAT HARTU DA.- 2022rako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez honako hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Aiarako Udalaren eta "GURASOEN ELKARTEA BABIO ASOCIACIÓN PADRES Y MADRES" elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea, eskolaz kanpoko jarduerak (2022-2023 ikasturtea) egiteko gastuak finantzatzeko. Horren bidez, 1.420 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zaio. Testuak honako hau dio hitzez hitz:

“AIARAKO UDALAREN ETA BABIO GURASOEN ELKARTEA – BABIO ASOCIACION PADRES Y MADRES ELKARTEAREN ARTEKO 2022ko LANKIDETZA-HITZARMENA

Arespalditzan, 2022ko ren (e)(a)n.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna (NAN zk.: 44686448R), Aiarako Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren izenean, eta Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin, NAIARA LAZPITA MARCOS (NAN zk.: 45676325G), egintzaren fede ematen duena.

Bestetik, andrea, adinez nagusia, ----- NANaren titularra, eta egoitza Amurrioko Etxebarriaur kaleko 8. zenbakian duena, "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteko presidentea.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkaritza, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrena, aipatutako elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz. Elkarreak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu du haren nortasuna eta ordezkaritza, eta aktaren fotokopia aurkeztu du udalean. Bertan, "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteko presidente aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzaz-hitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako



HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I.- Aiarako Udalak, udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak babestu eta sustatzeko udalaren interes publikoa kontuan hartuta, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetzak emango dizkio "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteari, bere helburuak lortzeko.

II.- Udalak interes berezia du eskola-ordutegitik kanpoko jarduera osagarriak (eskolaz kanpoko jarduerak) mantentzeko eta sustatzeko.

III.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak gizarte- eta kirol-lan garrantzitsua eta handia egiten du, udalerrian kultura- eta kirol-jarduera handia sortzen duen erakundea baita, eta, zehazki, gazteen eta familien artean arte- eta kirol-jarduera sustatzen baitu, ikastetxearen ohiko jardueraren osagarri.

IV.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak beti erakutsi du interes handia Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko, gazteekin eta haien familiekin zerikusia duten gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduerak antolatzeko.

V.- Aiarako Udalak, bere sustapen-jardueraren parte izanik, udalerrian gazteentzako eta haien familientzako kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea erabaki du, eta sustapen hori hitzarmen honen bidez artikulatzea. Hitzarmen honek Zaraobe Institutuan 2022-2023 ikasturtean egindako eskolaz kanpoko jardueren gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza arautzen du, ikastetxeko jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.

VI.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzak hitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzak hitzarmen hau gauzatzen dute. Honako hauek bete beharko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Aiarako Udalak Zaraobe Institutuaren eskolaz kanpoko gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduera eta jarduera osagarria bultzatzea eta sustatzea, baita "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkartearen bidez familiei zuzendutako prestakuntza bultzatzea eta sustatzea ere.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak dakartzan gastuen zati bati arreta eta dirulaguntza ematean datza.

Jarduera garatzeko beharrezkoa den materiala elkartearen kontura izango da.

2022-2023 ikasturterako gehieneko dirulaguntza 1.420,00 eurokoa izango da.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialaren arabera izango da. Egutegi hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratuko du, Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez, eta 2023ko ekainean amaituko da.



LAUGARRENA.- Dirulaguntza ordaintzeko modua honako hau da: Aiarako Udalak ezarritako gehieneko dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena sinatzean. Eta gainerako % 20, hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

BOSGARRENA.- Urteko udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** (gehienez ere 1.420,00 euro), zenbateko horri buruzko dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitortpena.

b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Diruz lagundutako jarduerari buruzko dokumentazio hau:

- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diruz lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko aitortpena).
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-agiriak aurkeztuta.

Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da dirulaguntza emango eta aldez aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.

Hitzarmen honen bosgarren hizpaketan eskatutako justifikazioa 2023ko irailaren 30a baino lehen aurkezten ez bada, ez da dirulaguntza emango, eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.

Jarduera honetarako dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

SEIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak Aiarako Udalaren lankidetzara jaso beharko du jarduera honetarako egiten duen publizitate guztian.

ZAZPIGARRENA.- "GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" elkarteak hitzarmen honetan hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-araubidea aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzara-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten folio bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean hitzarmena betetzeko.



ALKATE-UDALBURUA,
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,
Sin.: Naiara Lazpita Marcos.

"GURASOEN ELKARTEA BABIO-ASOCIACION PADRES Y MADRES" ELKARTEKO
PRESIDENTEA,

Sin.: andrea

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Babio guraso-elkarteari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sina dezan.

4.- Onestea, bidezkoa bada, ETXAURREN IKASTOLAKO IGEaren lankidetzahitzarmena, eskolaz kanpoko jardueretarako, 2022-2023 ikasturterako.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko azaroaren 8ko Euskara eta Hezkuntzako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren interes publikoa haurrek kultura- eta kirol-jarduerak egin ditzaten zaindu eta sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako guraso-elkartearen arteko lankidetzahitzarmenaren proposamena, eskolaz kanpoko jarduerak (2022-2023 ikasturtea) egiteko gastuak finantzatzeko.

AINZAT HARTU DA.- 2022rako udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia dagoela Hitzarmen horrek dakartzan gastuei aurre egiteko.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez honako hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako guraso-elkartearen arteko lankidetzahitzarmena onestea, eskolaz kanpoko jarduerak (2022-2023 ikasturtea) egiteko gastuak finantzatzeko. eskolaz kanpoko jarduerak (2022-2023 ikasturtea) egiteko gastuak finantzatzeko. Horren bidez, 2.200 euroko zuzeneko dirulaguntza eman zaio. Testuak honako hau dio hitzez hitz:



“AIARAKO UDALAREN ETA ETXAURREN IKASTOLAKO GURASO- ELKARTEAREN ARTEKO 2022ko LANKIDETZA-HITZARMENA

Arespalditzan, 2022ko ren (e)(a)n.

HAUEK BILDU DIRA

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna (NAN zk.: 44686448R), Aiarako Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren izenean, eta Aiarako Udaleko idazkariaren laguntzarekin, NAIARA LAZPITA MARCOS (NAN zk.: 45676325G), egintzaren fede ematen duena.

Bestetik, jauna/andrea, adinez nagusia, ----- NANaren titularra, eta egoitza duena, "Etxaurren Ikastolako guraso-elkarteko" presidentea.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko alkate-udalburua, toki-erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera horretarako gaitua eta eskuduna.

Bigarrena, aipatutako elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz. Elkarateak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko du haren nortasuna eta ordezkaritza, eta aktaren fotokopia aurkeztuko du udalean. Bertan, "Etxaurren guraso-elkarteko" presidente aukeratu eta izendatzen da (hitzarmen honi 1. dokumentu gisa erantsi zaio).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **Lankidetzahitzarmen** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I.- Aiarako Udalak, udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak babestu eta sustatzeko udalaren interes publikoa kontuan hartuta, hitzarmen honetan zehazten diren bitartekoak eta lankidetzahitzarmen emango dizkio guraso-elkarteari, bere helburuak lortzeko.

II.- Udalak interes berezia du eskola-ordutegitik kanpoko jarduerak (eskolaz kanpoko jarduerak) mantentzeko eta sustatzeko.

III.- "Etxaurren guraso-elkarateak" gizarte- eta kirol-lan garrantzitsua eta handia egiten du, udalerrian kultura- eta kirol-jarduera handia sortzen duen erakundea baita, eta, zehazki, haurren artean, umeen artean arte- eta kirol-jarduera sustatzen baitu, ikastetxearen ohiko jardueraren osagarri.



IV.- "Etxaurren guraso-elkarteak" beti erakutsi du interes handia duela Aiarako Udalarekin elkarlanean aritzeko, hurrekin lotutako kultura- eta kirol-jarduerak antolatzeko.

V.- Aiarako Udalak, bere sustapen-jardueraren parte izanik, udalerrian haurrentzako kultura- eta kirol-jarduerak sustatzea ebatzi du, eta sustapen hori hitzarmen honen bidez artikulatzea. Hitzarmen honek Etxaurren Ikastolan 2022-2023 ikasturtean egindako eskolaz kanpoko jardueren gastuen zati bat ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza arautzen du, ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueren egutegiaren arabera.

VI.- Aplikatu beharreko legeria zehatz-mehatz beteta, eta toki-erakundeek lankidetzahitzarmenak sinatzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, bi aldeek lankidetzahitzarmen hau formalizatzen dute. Honako hauek bete beharko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen xedea da Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako eskolaz kanpoko gizarte-, kultura-, arte- eta kirol-jarduera eta jarduera osagarria bultzatzea eta sustatzea, "Etxaurren guraso-elkartearen" bidez, baita "Etxaurren guraso-elkartearen" elkartearen bidez familiei zuzendutako prestakuntza bultzatzea eta sustatzea ere.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak garatu beharreko sustapen-jardueraren edukia eskolaz kanpoko jarduerak dakartzan gastuen zati bati arreta eta dirulaguntza ematean datza.

Jarduera garatzeko beharrezkoa den materiala elkartearen kontura izango da.

2022-2023 ikasturterako gehieneko dirulaguntza 2.200,00 eurokoa izango da.

HIRUGARRENA.-Dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzeko epea ikastetxearen egutegi ofizialaren arabera izango da. Egutegi hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratuko du, Arabako Lurralde Ordezkaritzaren bidez, eta 2023ko ekainean amaituko da.

LAUGARRENA.-Dirulaguntza hori honela ordainduko da: Aiarako Udalak dirulaguntzaren % 80 hitzarmena sinatu ondoren ordainduko du, lehen ordainketa baino lehen Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu ondoren. Eta gainerako % 20, hurrengo klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

BOSGARRENA.-Urteko udal dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO (gehienez ere 2.200,00 euro), zenbateko horri buruzko dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako dirulaguntza guztien aitorpena.

b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Diruz lagundutako jarduerari buruzko dokumentazio hau:



- Diruz lagundutako ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren balantzea.
- Diru lagundutako ekitaldiko jardueren memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazio-fitxa eta egin izanaren zinpeko aitortpena).
- Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta diru-sarrerekin, dagozkien fakturak eta ordainketa-agiriak aurkeztuta.

Lehenengo hizpaketan adierazitako baldintzak ez badira betetzen, ez da dirulaguntza emango eta alde zuzenetik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.

Hitzarmen honen bosgarren klausulan eskatutako justifikazioa 2023ko irailaren 30a baino lehen aurkezten ez bada, ez da dirulaguntza emango, eta zuzenetik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.

Jarduera honetarako dirulaguntza hau ez da bateragarria izango Udalak urtero deitzen dituen gainerako dirulaguntzekin.

SEIGARRENA.- "Etxaurren gurasoen-elkarteak" Aiarako Udalaren lankidetzara jaso behar du jarduera honetarako egiten duen publizitate guztian.

ZAZPIGARRENA.- "Etxaurren gurasoen-elkarteak" hitzarmen honetan hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian aurreikusitako erantzukizun- eta zehapen-araubidea aplikatuko da.

Eta adostutakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek lankidetzara-hitzarmen honen bi aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten folio bakoitzean, eta konpromisoa hartu dute goiburuan ageri den lekuan eta egunean betetzeko.

ALKATE-UDALBURUA,
PRESIDENTEA,

"ETXAURREN

GURASO-ELKARTEKO"

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.:

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Sin.: Naiara Lazpita Marcos".

Bigarrena.- Alkate-udalburuari hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau Etxaurren Ikastolako gurasoen-elkarteari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sinatzean.



5.- Onestea, bidezkoa bada, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko azaroaren 8ko Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren eta Ogasuneko, Funtzio Publikoko eta Barne Araubideko Batzorde Iraunkorraren aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- 2022ko urriaren 19an, 18/2022 Errege Lege-Dekretua argitaratu da Estatuko Aldizkari Ofizialean; besteak beste, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituena.

AINTZAT HARTU DA.- Zehazki, VIII. atalean, 23. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

“VIII. ATALA. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).

“23. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako.

1. 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. ataletan, eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehigarria izango dute, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

2. Gehikuntza-gehigarri hori 19.2. artikuluan xedatutako moduan egingo da, eta honako arau hauek beteko ditu:

1. 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie. Beraz, bien baturak, nolahi ere, ehuneko 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera globala finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

2. 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.

3. Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen eremuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da; eta, nolahi ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.”

IKUSI DIRA.- EUDELeK 2022rako ordainsari-igoera gehigarriari buruz egindako gomendioak.



Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez honako hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- 2022ko urtarrilaren 01etik aurrerako ondorioekin, 2022 ekitaldirako udal-langileen ordainsariak % 1,5 gehitzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

Bigarrena.- Era berean, 2022 ekitaldirako Alkatetzaren ordainsariak ehuneko horietan igotzea, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

Hirugarrena.- Aipatutako igoerak aplikatzearen ondorioz sortutako atzerapenen zenbatekoak ordaintzea, azaroko nominan jaso ez badira.

Laugarrena.- Erabakiaren berri ematea Sindikatu Ordezkaritari, Kontu-hartzailetzari eta Udal-diruzaintzari.

6.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena, kreditua transferitzeko 1/2022 espedientea onesteko, bidezkoa bada.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundeen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzaketela. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, gaia bozkatu da eta aho batez erabaki du puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek).

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022rako indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoera-orrian Udalbatzak 1/2022 kreditua transferitzeari buruzko espedientea, 10.0000 eurokoa.

AINZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazi duenez, espedientea bat dator Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 29. eta 30. artikuluetan eta Udal Aurrekontuak Betearazteko Arauaren 13. artikuluan ezarritako baldintzekin.

Bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez honako hau **ERABAKI DUTE**:



Lehenengoa.- Aipatutako espedientea eta horren ondoriozko aldaketak onartzea. Ondoren zerrendatzen dira horiek:

A) Gutxitu beharreko gastuen egoera-orria aplikatzea:

<u>Aplikazioa</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Hasieran eskuragarri dagoen kreditua</u>	<u>Gutxitu beharreko zenbatekoa</u>
323.604.000	IKASTOLAKO BERDEGUNEAREN ITXITURA HANDITZEA	10.000	10.000 €

Kreditu-bajak guztira 10.000 €

B) Gehitu beharreko gastuen egoera-orria aplikatzea:

<u>Aplikazioa</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Hasierako kreditua</u>	<u>Gehikuntza</u>
323.622.020	ETXAURREN IKASTOLAKO LURZORUA HOBETZEKO OBRAK	0 €	10.000 €

Kreditu-gehikuntzak guztira 10.000 €

Bigarrena.- Ebazpen hau irmoa eta betearazlea izanik, izapide gehiago egin beharrik gabe, Kontu-hartzaitzak erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondorioekin.

7.- Osoko bilkuraren erabaki-proposamena, kreditu gehigarriaren 11/2022 espedientea onesteko, bidezkoa bada.

Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundearen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia. Horren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzakete. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udaltzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren ganean dago, eta ez da inolako iruzkinik egin, beraz, gaia bozkatu da, eta aho batez onetsi da puntua bilkura honetako gai-zerrendan sartzeko berrestea.



Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du Informazio Batzordean aipatu zirenak baino partida gehiago sartu direla, zehazki, hauek sartu dira: altzari osasungarriak, gizarte-laguntzailearen ordainsariak, ikastolako mantentze-lanak eta hornidurak, altzari osasungarriak eta haurrentzako altzariak.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du laguntzailearen ordainsari-partida sartu dela, behin aurre egin behar zaion zenbatekoa egiaztatu ondoren, soldata-igoerari dagokionez, ikusi baita partida horretan (ez da beste inorekin lotzen) beharrezkoa dela handitzea. Ikastola eta Haurreskolaren hornidura- eta mantentze-partidan, zenbait kontzeptu izugarri handitu dira, esate baterako, energia elektrikoaren, gasolioaren eta abarren hornidurak, eta horri aurre egin ahal izateko handitu egin behar da. Horrez gain, gaineratu du Barrena kalean zabu batzuk jarriko direla umeentzat, eta gastuari aurre egin ahal izateko partida ez zen iristen.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du pozik daudela mugikortasun-diagnostiko bat egitea erabaki delako. 2020an, EH BILDUK aurrekontuei ekarpen bat egin zien mugikortasunari buruzko azterketa bat egin zedin, eta une horretan ezetz esan zen; eta Informazio Batzordean Iñigo Pinedo jaunak hitzez hitz esan zuen EH BILDUK Aiarako biztanleriaren mugikortasunari buruzko azterketa bat egiteko aurkeztutako zuzenketa ezetsi egiten zela, eskumena Arabako Foru Aldundiarena delako, autobus-garraioaren zerbitzua ematen duena, eta, beraz, berak egin behar duelako azterketa hori. Jarraitu du esaten, harritzen diela orain udalak diagnostikoa egin ahal izateak, eta galdetu dute ea Aldundiak baimena eman dien hori egiteko, edo 2020an esandakoa azterketa hori aurrera ez eramateko aitzakia hutsa zen. Pozik daude gaia martxan jartzearekin, nahiz eta proposatu zenetik bi urte luze igaro diren.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du planteatu duten diagnostikoa ez dela autobus-lineena bakarrik, trenak, bizkaibuseko lineak eta mugikortasun pribatua ere barne hartzen dituela, eta, gainera, 2030 Agendatik atera den ideietako bat dela. Aipatutako guztiaz gogoeta egin nahi da eta mugikortasuna aztertu, udal zerbitzuren bat martxan jarri behar den ikusteko. Gainera, azken urteotan hainbat gauza aldatu dira, hala nola osasun-zentroetara joateko mugikortasunaren gaia, eta abar. Beraz, azterlan hori aurrera eraman behar dela ulertzen da.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du duela bi urte egitea eskatu zenaren izen bera duela, eta lehen Aldundiak egin behar zuela, eta orain udalak egin dezakeela, harritzen die, dio. Duela bi urte egin izan balitz, ondorioak aterako ziren. Orain ez dakigu noiz amaituko den, eta ziur dago amaitzen denean ere gauza batzuk aldatu egingo direla; beraz, aldaketak ere ez dira aitzakia duela bi urte azterketa egin ezin izateko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Aldundiaren eskumenekoak diren garraioei buruzko hausnarketak Aldundiak berak egin beharko dituela, eta udalak hausnarketa zabalagoa egingo duela.

EGINBIDEA.- 19:12ak direnean Susana Martín Benavides zinegotzi andrea osoko bilkuren aretoan sartu da.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du orain udalerrimailan egin nahi diren hausnarketa horiek duela bi urte ere egin zitezkeela, ez baita ulertzen lehen



egokia ez zela esatea, eta orain bai. Bere ustez, berdin dio proposamena nork egiten duen, zerbait positiboa bada aurrera eramane beharko litzateke.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du duela bi urte diagnostiko hori egitea proposatu zutenean, ez zirela Aldundiaren autobus-lineen mugikortasunean zentratu, baizik eta Aiarako biztanleriaren mugikortasun osoaren azterketa egin nahi zela.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2021eko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili beharra, 2022rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2023ra arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaitzako organoak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundearen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatzen du) jasotakoaren bat etorriz. Txostena Udalbatzari aurkeztuko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera ezagut dezan.

AINZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez honako hau **ERABAKI DUTE**:

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:

APLIKAZIOA	IZENDAPENA	ZENBATEK OA/€
170.227.071		13.876,04 €.
323.622.020	ETXAURREN IKASTOLAKO LURZORUA HOBETZEKO OBRA	3.435,19 €
334.625.010	GAZTELEKUKO EKIPAMENDUA	2.940,70 €
171.601.000	ALTZARI OSASUNGARRIAK ETA HAURRENTZAKO ALTZARIAK	6.754,74 €
323.211.000	IKASTOLA ETA HAURRESKOLAKO MANTENTZE-LANAK ETA HORNIDURAK	15.000 €
230.120.000	GIZARTE-LAGUNTZAILEAREN ORDAINSARIAK	750 €

ZENBATEKOA

GUZTIRA:

42.756,67€.



Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, beraz, espedientea berdinduta eta defizitrik gabe geratzen da:

A. Handitu beharreko diru-sarrerren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u>Diru-sarrerren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	42.756,67€.
	GUZTIRA	42.756,67€.

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da, eta onartu edo baztertu egin beharko dira.

8.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko azaroaren 15eko Hirigintzako, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hartu du hitza Arespalditzako ludotekaren maiztasunari dagokionez agirian zuzenketa bat egin dela aipatzeko. Urritik ekainera bitartean, hilean behin izatetik astean behin izatera igaroko da.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza bere taldearen aurkako botoaren zentzua azaltzeko. Esan duenez, agiriak azaroaren 15eko ezohiko batzordera eraman ziren, osoko bilkura hau baino lehen ekarpenak egiteko denborarik izan gabe. EH BILDUK ekarpenak egin nahi zituen ura eta energia aurrezteko, erosketa berdeak bultzatzeko, subrogazioa zehazteko, hizkera sexista ez erabiltzeari buruzko aipamenak sartzeko, eta euskararen erabilerari buruz. EAJ-PNVk batzorde horretan erantzun zuen ez zegoela denbora gehiago emango agiriak aztertzeko. Gaineratu duenez, uste dute garbiketa-lana prekarizatu egiten dela eta batez ere emakumeek egiten dutela, eta uste dute agirietan zerbitzua jaso zitekeela duintzeko. Ez dute uste haien gainetik korrika pasatu behar zenik, energia aurrezteko gauza txikiak sartzeko aukera galdu da, egoera aldatzen ari delako eta erabakiak hartu behar direlako; beraz, hori egiteko aukera galdu dela gaineratu du.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du ingurumen-irizpideak, produktuei dagokienez, agirietan jasota daudela. Langileen subrogazioari dagokionez, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera nahitaezkoa da, eta, beraz, ezin da hori aldatu. Gainera, prekarizazioari dagokionez, zerbitzu hori ematen duten langileei aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboa aplikatu behar zaie, agirietan jasotzen denari jarraikiz.

Karmele Población Martínez (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du ingurumenari buruzko gaiak orokorrean jorratzen direla; bere taldeak gauza gehiago ekarri nahi zituen garbiketa-produktuei buruzko alderdi jakin batzuk zehazteko, adibidez. Horregatik, informazio batzordean denbora gehiago eskatu zen.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak hartu du hitza eta esan du kaltetuta aterako direnak langileak direla, ez dutelako beren burua eraikin publikoen garbiketa-hitzarmenean subrogatu nahi, baizik eta hezkuntza-hitzarmenean, horrek baldintza hobeak baititu. Eta hori egin zitekeen. Agirietan jaso behar zen. Gainera, kontuan hartu behar da, subrogazioa egon arren, horrek ez duela esan nahi sartzan den enpresak langileak beren lanpostuetan mantenduko dituenik. Guardian gertatu zen. Osakidetzak, osasun-zentroa bere gain hartzean, ez ditu subrogatu eta kalera bidali ditu. Gaineratu du, dagoeneko hilabete askotako atzerapena dagoela agiri horiekin; beraz, ez zen ezer gertatuko kontu horiek lantzeko eta hobeto aztertzeko denbora gehiago emateagatik.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du garbiketa udal-zerbitzua dela eta agiriak udal-eraikinak garbitzeko hitzarmenaren babesean ateratzen direla, nahiz eta garbitu beharreko eraikinetako bat ikastola den.

Koldo Mendioroz Goldaraz (EH BILDU) zinegotzi jaunak hartu du hitza berriro eta esan du, aplikatzeko hitzarmena hori izan arren, langileek beste baldintza batzuk negoziatzea ditzazketela enpresarekin, hezkuntza-hitzarmena edo dena delakoa erreferentzia gisa hartuta. Horregatik, denbora gehiago eskatzen da mahai gainean jartzen ari diren gai horiek guztiak aztertu ahal izateko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du agiri hau ekarri dela osoko bilkurara, eta bozkatu egingo dela.

Ez da iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 8 (7 EAJ-PNV eta 1 AIARA BATUZ)

AURKAKO BOTOAK: 3 EH BILDU

Ondorioz, eta

IKUSI DA.- Espedientean jasota dagoenaren arabera, kanpoko enpresa batekin kontratu bat sinatzeko beharra ikusi da, “**Aiarako Udalaren udal-eraikinak garbitzeko**” zerbitzua kontratatzeko.

IKUSI DA.-Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 b) artikuluan xedatutakoaren arabera (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), kontratuaren xedearen izaeragatik, obra-jarduketak



modu independentean eginez gero, ikuspegi teknikitik, zaildu egingo luke hura behar bezala gauzatzea, eta, beraz, ezin da lotetan banatu.

IKUSI DA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 116.4.f) artikuluan xedatutakoaren arabera (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), baliabide nahikorik ez dagoela, lotetan banatu ez dela eta kontratua beharrezkoa dela egiaztatzeko justifikazio-txostenak egin dira.

IKUSI DIRA.- Lizitatuko den kontratuaren ezaugarri nagusiak. Honako hauek dira:

Kontratu mota: ZERBITZU-KONTRATUA			
Kontratuaren xedea: “Aiarako Udalaren udal-eraikinak garbitzeko” zerbitzua.			
Kontratazio-prozedura: irekia		Izapidetze-mota: Ohikoa	
CPV kodea: CPV 90911200-8 udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuak, CPV 90919100-3 bulego-ekipoak garbitzeko zerbitzuak, CPV 90919200-4 bulegoak garbitzeko zerbitzuak, CPV 90911300-9 leihoak garbitzeko zerbitzuak, CPV 90919300-5 eskolak garbitzeko zerbitzuak.			
Kontratuaren balio zenbatetsia, guztira: 609.268,35 € (BEZik gabe)			
Lizitazio mota: (BEZik gabe)	121.853,67 €	% 21eko BEZa:	25.589,27 €
Lizitazioaren oinarri mota, BEZa barne:	147.442,94 €		
Epea: BI URTE, hiru (3) luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa			

IKUSI DA.- Izapidetutako kontratazio-espeditentea.

IKUSI DIRA.- Kontratuaren ezaugarriak eta zenbatekoa, adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egin behar da.

AINZAT HARTU DA.- Aldez aurretik izapidetzen den kontratazioa denez; izan ere, hurrengo ekitaldian hasiko da gauzatzen, kontratua adjudikatzeko baldintza izango da dagokion aurrekontu-ekitaldian kontratua finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzeko baldintza etengarriaren mende geratuko da adjudikazioa, SPKLren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera.

Espeditentean jasotako dokumentazioa aztertu da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera (Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

Udalbatzak, gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- “Aiarako Udalaren udal-eraikinak garbitzeko” zerbitzuaren kontratua adjudikatzeko kontratazio-espeditentea onestea, **ohiko izapidetze irekiaren bidez.**



BIGARRENA.- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua onestea, 121.853,67 eurokoa, gehi 25.589,27 euro, % 21eko BEZari dagozkionak, bidezkoa bada; guztira, gehieneko 147.442,94 euroko lizitazio-tasa.

HIRUGARRENA.- Kontratua arautuko duten eta espedientean jasota dauden Klausula Ekonomiko Administratibo Berezien Agiriak eta **preskripzio teknikoan agiria** onestea, eta, era berean, **lizitazioaren deialdia onestea.**

LAUGARRENA.- Lizitazio-iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

BOSGARRENA.- Kontratatzailearen profilean kontratazio-espeditentea osatzen duten nahitaezko agiriak argitaratzea, bereziki administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoan agiria eta obra-proiektua. Eskaintzak aurkezteko beharrezko dokumentazioak lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunean bertan egon behar du eskuragarri.

SEIGARRENA.- Kontratazio-mahaiko kideak izendatzea eta mahai horren osaera kontratatzailearen profilean argitaratzea:

Gentza Alamillo Udaeta jauna, **Presidentea** (Udalbatzako alkate-udalburua).
Naiara Lazpita Marcos andrea, **Kidea** (Udalbatzako idazkari kontu-hartzailea).
Andoni Oguiza Lejarcegui jauna, **Kidea** (Udalbatzako funtzionarioa).
Clara Isabel Furundarena Udaeta andrea, **Kidea** (Udalbatzako funtzionarioa).
Eneritz Ferrero Ramos andrea, **Idazkaria** (Udalbatzako bitarteko funtzionarioa).

9.- Batzordea izendatzea, Luiaondo, Olabezar eta Etxegoien kontzejuetan Aiara eta Amurrio mugatzeko.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2022ko azaroaren 8ko Administrazio Batzarreko Harremanetarako Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, Udalbatza osatzen duten zinegotziek aho batez onetsi dute.

Ondorioz, eta

IKUSI DA.- Luiaondo kontzejuko Aiara eta Amurrio udal-mugarten mugaketari dagokion mugarri-lerroa aitortzeko administrazio-espeditentea (2018/4/S845). Bertan, 2018ko apirilaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Aiarako Udala ordezkatu behar zuen batzorde bat izendatzea erabaki zen, jurisdikzio-lerroa aitortzeko eragiketa egiaztatzeko. Honako hauek osatzen zuten:

– Alkate-udalburua.



- Zinegotziak: José Antonio Bartolomé Pesquera jauna, Josu Artetxe Arana jauna, Esteban Hernando Landa jauna eta Iratxe Parro Uzquiano andrea.
- Udal-idazkaria.

Eta Jon Ander Navarro Martín jauna, mendietako ingeniaria, peritu izendatzen da batzorde horretan lagun dezan.

IKUSI DA.- Olabazar kontzejuko Aiara eta Amurrio udal-mugarteen mugaketari dagokion mugarri-lerroa aitortzeko administrazio-espeditentea (2018/1/S845). Bertan, 2018ko otsailaren 22ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Aiarako Udala ordezkatu behar zuen batzorde bat izendatzea erabaki zen, jurisdikzio-lerroa aitortzeko eragiketa egiaztatzeko. Aurreko “IKUSI DA” paragrafoan adierazitako pertsona berberak osatzen zuten.

AINTZAT HARTU DA.- 2022ko martxoaren 14an 463/2020 Errege Dekretua sartu zen indarrean, zeinaren bidez COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen. Ondorioz, espeditenteak geldiarazi egin ziren.

AINTZAT HARTU DA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 474/2015 epaia, 2015eko azaroaren 12koa, Etxegoien kontzejuko Aiara udalerriaren eta Amurrio udalerriaren arteko mugari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Bi aldeek espeditenteekin jarraitu nahi dute mugaketa-prozesua amaitzeko, eta jurisdikzio-lerroa egiaztatzeko 2018an izendatu zen Batzordeak dagoeneko ezin du bildu; izan ere, kargu politikoak dira, eta gehienak ez daude legegintzaldi honetan.

IKUSI DA.- Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen mugak, izena, hiriburua eta ezaugarriak arautzen dituen otsailaren 21eko 4/2011 Foru Arauaren 34. eta 35. artikuluetan xedatutakoa, Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduko 17. artikulua eta hurrengoak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Erregelamendu hori), eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2b) artikulua.

IKUSI DA.- 2022ko azaroaren 8ko Administrazio Batzarreko Harremanetarako Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Honako kide hauek izendatzea, Batzordeko aurreko kideak ordezkatzeko. Batzorde horrek, Aiarako Udalaren izenean, Aiara udalerriaren eta Amurrio udalerriaren arteko jurisdikzio-lerroa finkatzera joan beharko du, Amurrioko Udalak izendatutako Batzordearekin batera. Horen xedea da lerroaren trazadura zehatza deskribatzen duen akta egitea.

- Zinegotziak:
- Iñigo Pinedo Vadillo jauna (EAJ-PNV)



- Karmele Población Martínez andrea (EH-BILDU)
- Iratxe Parro Uzquiano andrea (AIARA BATUZ)

Beraz, Batzorde hori honako hauek osatuko dute; Udaleko alkate-udalburuak, aipatutako zinegotziek eta udal-idazkariak, 4/2011 Foru Arauaren 34. artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik. Era berean, 2018ko apirilaren 24an eta 2018ko otsailaren 22an egindako osoko bilkuretan hartutako gainerako erabakiak mantenduko dira.

Bigarrena.- 2018an hasitako mugaketa-prozesuekin jarraitzea, eta honako hau erabaki da: izendatutako eta eguneratutako Batzordea datuen egiaztapenera joatea, Aiara udalerraren eta Amurrio udalerraren arteko jurisdikzio-lerroa finkatzeko, ezartzen den mugan eta tokian, Amurrioko Udalak izendatutako Batzordearekin eta horretarako izendatutako Arabako Foru Aldundiko ordezkariarekin batera. Horen xedea da lerroaren trazadura zehatza deskribatzen duen akta egitea.

Hirugarrena.- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Lurralde Informazio Atala bertaratzeko eskatzea, aholkua eman eta egoki iritzitako argibideak eman ditzan.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea Amurrioko Udalarari eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Lurralde Informazio Atalari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagokion ondorioak izan ditzan.

10.- Alkatetzaren dekretuen berri ematea

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/658 eta 2022/740 bitarteko Alkatetza Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/658.- Ozekako Administrazio Batzarra.- Ozekako Ulibarri auzoan patina konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/659.- Ned Suministro GLP SAU.- Tokiko jabari publikoa okupatzeagatik tasaren likidazioa, 2022ko hirugarren hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/660.- JM.B.O.- Obra egiteko udal-lizentzia ematea eta Izoriako etxebizitza birgaitzeko obra hasteko baimenerako eta aurreko partzelatik banantzeko lizentziarako dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/661.- M.M.C.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/662.- MA.A.C.- Beotegiko horma zati batean birgaitzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/663.- Nortega Energía D. SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/664.- E.A.L.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/665.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2022ko iraila.



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/666.- Belako Lanak SLU.- Udalerriko bideen eta errepideen arteko loturen garbiketa mekanikoko zerbitzuaren berme gisa aurkeztutako abala itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/667.- JM.B.O.- Izoriako baserria birgaitzeko obra-hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/668.- A.E.M.- Biztanleen erroldan ofizioz baja ematea, bidegabeko izen-emateagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/669.- Aiaraldea Koop. Elk. Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea, 2022ko lankidetzeta-hitzarmena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/670.- Arespalditzan haur-parkea egiteko obra- eta hornidura-kontratu mistoaren proiektua eta kontratazio-espeditentea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/671.- Administrazio-batzarrentzako ordainsari eta obretarako dirulaguntzen deialdia eta oinarriak onestea, 2022. urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/672.- 2022ko Mugarri Plana laguntza-eskaera, udal-eraikinetako instalazio fotovoltaiakoen proiektuak finantzatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/673.- Erregistratutako fakturen kontularitza-zerrenda onestea, F/2022/10.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/674.- Arespalditzako Goikosolo auzoan dagoen etxebizitzan fatxada pikatu eta berriz elkartzeko obrak egiteko udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/675.- G.O.A.- Menagaraiko Jauregui auzoan partzela ixteko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

{>ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/676.- Arespalditzako Eguneko Zentroaren publizitate-bideoak egiteko zerbitzu-kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/677.- Baser Comercializadora de Ref. SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/678.- Orange Espagne SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/679.- Aiara Valley SL.- Menagarain dagoen baserria eraberritzeko obrak egiteko udal-lizentzia handitzea, Garapen Teknologikorako Zentro bihurtzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/680.- Totalenergias Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/681.- I-DE REDES ELECTRICAS SAU.- Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, Artziniega eta Menagarai artean dauden aireko lineak airetik eta lur azpitik lotzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/682.- EDP Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, energia-horniduragatik, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/683.- Acciona Green Energy D. SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, energia-horniduragatik, 3/2022.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/684.- M.A.L.- Murgako industrialdean dagoen Kider enpresaren jarduera-espeditenteen kontsultarako sarbidea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/685.- Elkarkidetzeta Pentsioak. 2022ko urriko fakturalikidazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/686.- Totalenergies Electricidad y Gas SA.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/687.- Goiener, S.Coop. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/688.- Autobuses Cuadra SL.- Eskola-garraioko zerbitzurako baimena, 2022-2023 ikasturtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/689.- F.A.L.- Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/690.- Aiarako Kuadrilla.- Ekarpen ekonomikoa, HHS kudeatzeagatik, 2022ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/691.- Aiarako Kuadrilla.- Ekarpen ekonomikoa, gastu orokorren eta bestelako gastuengatik, 2022ko 4. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/692.- APPLUS NORCONTROL SL.- Murgako 20. zenbakiko 4. moduluko 3. nabean kokatutako industria-pabiloi batzuei buruzko informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/693.- F.G.O.- Hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea eta Zuatza etxebizitzan fatxada konpontzeko obra-lizentzia emateko espeditentea amaitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/694.- I.P.B.- Ozekan etxebizitzarako sarbidea hobetzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/695.- I.E.I.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak aldatzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/696.- L.de U. A.- Beotegiko 6. poligonoko 354 partzelan dauden eraikinei buruzko informazio publikorako sarbidea, dokumentuen kopiak eta hirigintza-txostena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/697.- J.A.- Gorobel mendilerroko San Vitores Jaiari, San Vitores Baselizari eta gaur egungo San Vitores arkuari buruzko informazio publikorako sarbidea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/698.- Etxegoingo Administrazio Batzarra.- Burdinen Etxetik Etxegoingo bidegurutzerako bidea hobetzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/699.- JA.E.M.- Izoriako etxebizitzan gasolio-galdara aerotermikoarekin ordezkatzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/700.- M.I.E.B.- Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatu zitzaion, Arespalditzako Atxa Jauregiko estalkia birgaitzeko obrak hasteko baimena emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/701.- Zuhatzako Administrazio Batzarra.- Haur-parkea jartzeko hiri-espazioa egokitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/602.- Dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion, Arespalditzan etxebizitzaren teilatua berritzeko obra-lizentzia emateko.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/703.- M.I.E.B.- Arespalditzako Atxa Jauregiko estalkia birgaitzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/704.- Etorri, Koop. Elkartea.- Obrak egiteko udal-lizentzia ematea eta HONDAKINAK K. FIDANTZA eskatzea, obrak hasteko baimena emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/705.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.- Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea, Arespalditzako Muñezkan auzoan zubia konpontzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/706.- Los Arcos de Quejana SL.- Kexaan lurra berdintzeko eta zolata eraikitzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/707.- Sociedad Aranzadi Zientzia Elkartea.- Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea, 2022ko lankidetzaren hitzarmena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/708.- "Aiarako Gaztelekua" kudeatzeko zerbitzuaren kontratazio-espedita onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/709.- Gurasoen Elkartea Babio.- 2021eko dirulaguntza ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/710.- Alkatearen eta funtzionarioen nominen ordainsari likidua onestea, 2022ko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/711.- C.V.R.- Aparkatzeko txartela ukatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/712.- H.E.P.- Olabazarreko Belaunde auzoko 22. zenbakian dagoen baserriaren berehalako aurri-egoera aitortzea eta eraikina eraisteko obra-amaierako dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/713.- Costera/Opellorako Administrazio Batzarra.- Costera/Opellorako Mendiko auzoan garbategia birgaitzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/714.- Repsol Comercializadora de E y G SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, energia-horniduragatik, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/715.- Repsol Comercializadora de E y G SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, gas-horniduragatik, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/716.- Regsiti Comercializadora R SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/717.- Añesko Administrazio Batzarra.- Añesko hobi septikoa berritzeko obra-hondakinaren kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzultzea eta espedita amaitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/718.- Alkateak 10/2022 zenbakiko kreditu gehigarria onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2020/719.- Udalerriko alderdi politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2022ko urria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2020/720.- I.I.T.- Luiaondon kokatuta dagoen etxebizitzaren estalkian modulu fotovoltaikoak jartzeko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/721.- Udalkideei egindako ekarpen ekonomikoa, 2022ko urria.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/722.- TG Gizarte Segurantzaren.- 2022ko iraileko kotizazioa ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/723.- AFA.- PFEZ atxikipena ordaintzeko, 2022ko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/724.- Endesa Energía SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2022ko 3. hiruhilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/725.- Energía XXI Comercializadora de Referencia, SL.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 3/2022.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/726.- Belako Lanak SLU.- Aiarako bide batzuetako ertzak altueran inautesteko zerbitzu-kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/727.- Igor Blázquez Carretero jaunari adjudikatzea Arespalditzako partzela urbanizatzeko proiektuaren Arkitekto Teknikoaren eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioaren obra burutzeko zuzendaritza-zerbitzuaren kontratu txikia, haurrentzako jolas-gunea instalatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/728.- Roberto Ferrero Cifuentes jaunari adjudikatzea Arespalditzako partzela urbanizatzeko proiektuaren zuzendaritza-zerbitzuaren kontratu txikia, haurrentzako jolas-gunea instalatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/729.- JA.M.G.- 2022ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/730.- J.A. OZEKA - Josu Artetxe Arana.- Ozekako Gorbea auzoan obra-lizentziei buruzko informazio publikorako sarbidea eta espedienteak kontsultatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/731.- M.E.MG.- Informazio publikorako sarbidea.- 1875-1975 aldiko eraikinei buruzko dokumentazioa kontsultatzea udal-artxiboan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/732.- Aiarako Biltokia Kultural Elkartea.- Kultura, kirol eta gizarte arloko dirulaguntza, 2022. urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/733.- Arespalditzako Administrazio Batzarra.- Arespalditzako Muñezkan auzoan zubia konpontzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/734.- S.N.V.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena, 2022. urtea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/735.- J.O.O.- Arespalditzan etxebizitzaren fatxada berriz elkartzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/736.- Erregistratutako fakturen zerrenda onestea, F/2022/11.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/737.- Sojoko Administrazio Batzarra.- Sojoko Gizarte Etxeko estalkia konpontzeko obrak egiteko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/738.- MD.G.M.- Dokumentazioa eskatu zitzaion, Maroñoko etxebizitzako estalkian teilak ordezkatzeko obrak egiteko udal-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/739.- Urbabil SL.- Luiaondoko kalistenia-parkea hornitzeko eta instalatzeko kontratu txikia adjudikatzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/740.- E.E.N.- Murgako Garden Erena estalkian instalazio fotovoltaikorako obren udal-lizentzia ematea.

Inolako iruzkinik ez dagoenez, udalbatza jakinaren gainean geratu da.

11.- Galde-eskeak

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hartu du hitza eta galdetu du ea nola doan programa-kontratuaren gaia arkitekto bat hartzeko, eta ea praktiketako norbaiti eskatu zaion.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak hartu du hitza eta erantzun du IVAPeke praktikak eskatu direla, baina ez digutela inor esleitu. Programari dagokionez, zirriborro bat lantzen ari direla esan du, eta idazkariarekin komentatuko duela, hura zehazten joateko eta horrekin martxan jartzeko.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hartu du hitza eta esan du, AOT plazari dagokionez, bilera egin beharko litzatekeela Administrazio Batzarrekin, haiek zer proposamen dituzten ikusteko eta, horrela, eskaini beharreko zerbitzua antolatzeko. Eta, gaineratu duenez, obra eta ordainsariengatik dirulaguntzei dagokienez, aurreko batzordean hitz egin zen, bera datekin nahastu zen eta esan nahi zuena da Aldundiaren TEFFF urtarrilaren 31n jasotzen dutela batzarrek, eta horregatik proposatu zuen justifikatzeko epea martxora arte luzatzea, fakturak ordainduta izateko.
- Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta urriaren 21eko 4154 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du. Bertan, hildako langileak zenbatzeko panel bat jartzeko baimena eskatzen dute, eta gai hori nola dagoen galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du LAB sindikatuak eskatu zuela, bera haiekin harremanetan jarri zen eta esan zioten bi kokapen posible zeudela: Malato zuhaitzaren ingurua eta estankoaren pareko autobus-markesina. Esan nien Udalak ez zuela inolako arazorik, baina markesinan jartzea erabakitzen bazen, Administrazio Batzarrekin jarri behar zutela harremanetan, haren jabetzakoa baita. Eta ez dira berriro harekin harremanetan jarri, gaineratu du; beraz, ez daki jarriko duten ala ez.

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak esan du ea zertan geratu zen Zorrotzan gertatu zen istripuaren inguruan hitz egin zenarekin, zerbait jartzeaz hitz egin baitzen, gai hori nola ea nola geratu zen galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du udal-mailan zerbait egiterik balego ondo legokeela, batzorde batean hitz egin zen, baina mahai gainean geratu zen, lan-istripuko heriotzen nazioarteko eguna San Prudentzio eguna denez, ez zitzaigulako ezer egiteko egunik onena iruditu. Eta hor utzi zen gaia.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza berriro eta azaroaren 2ko 4297 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du. Bertan, Euskadin gehiegizko hilkortasunagatiko auditoretza egitea eskatzen da.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du hurrengo batzordera eramango dela. Aurkeztu duen elkarte Euskadi inguruan txertoen aurkako auzolandegian lan egiten duen elkarte da.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera amaitutzat eman du hemeretziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko azaroaren hamazazpian.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.